



**KILI-KILI**

**IPUINA**

*IÑIGITO TXAPELPUNK IPUIN KANTARIA, IPUIN  
DANTZARIA ETA IPUIN KONTALARIA DA. GAUERO,  
LOTARA JOAN BAINO LEHEN, AFALDU, HORTZAK  
GARBITU ETA TXIZA EGIN OSTEAN AMETS  
BATEAN GOOKAPI BASO MAGIKORA JOATEKO  
TRIKIMAILUA EGITEN DU... BEGIAK ITXI, BUELTA-  
ERDI EMAN, ATZERA BEGIRATU ETA HIRURA  
ARTE ZENBATZEN DU. BERTAN BIZITAKO  
ABENTURETAKO BAT KONTATUKO DIZUE ORAIN,  
ADI!*

**DUELA PILA BAT URTE, GIZAKIA ORAINDIK EXISTITZEN EZ ZENEAN, MUNDUA BASO HANDI BAT ZEN, NON DINOSAUROAK ETA IRATXOAK ELKARREKIN BIZI ZIREN INTSEKTU, ZUHAITZ ETA LANDAREEKIN BATERA.**

**EGUZKIAK, GURE IZARRAK, ZERUTIK BEGIRATZEN ZUEN, ETA ARGIA ETA BEROA BIDALTZEN ZIEN PLANETAKO BIZTANLEEI.**

*[EGUZKIAREN KANTUA IKUSI NAHI DUZU? KLIKATU BEHEKO ESTEKAN.](https://youtu.be/H1Ku1yWF8h8)*

<https://youtu.be/H1Ku1yWF8h8>

**BI EGUNETIK BEHIN HAIZEAK GOGOR JOTZEN ZUEN, HODEI GUZTIAK ELKARTZEKO. HODEIAK ELKARTZEN ZIRENEAN, ZERUA ESTALTZEN ZUTEN, EGUZKIA ESTALI EGITEN ZEN ETA EURIA ARI ZUEN.**

*[IRATXOEK HAIZEA NOLA AGURTZEN DUTEN JAKIN NAHI DUZU? KLIKATU BEHEKO ESTEKAN.](https://youtu.be/prROAkHHfYk)*

<https://youtu.be/prROAkHHfYk>

**BASOAN ZUHAITZ ASKO BIZI ZIREN, ETA, DAKIZUEN BEZALA, ZUHAITZ BAKOITZEAN IRATXO BAT BIZI ZEN.**


*[IRATXOAK ERA ERRAZ BATEAN NOLA MARRAZTU IKASI NAHI BADUZU KLIKATU BEHEKO ESTEKETAN.](https://bit.ly/Mithy_Pintxo_Liz)*

*[MITHY, LIZ ETA PINTXO MARRAZTEKO](https://bit.ly/Mithy_Pintxo_Liz)*

[https://bit.ly/Mithy\\_Pintxo\\_Liz](https://bit.ly/Mithy_Pintxo_Liz)

*[PAGO, HUR ETA IRATXO JAKINTSUA MARRAZTEKO](https://bit.ly/Hur_Pago_MaisuJakintsua)*

[https://bit.ly/Hur\\_Pago\\_MaisuJakintsua](https://bit.ly/Hur_Pago_MaisuJakintsua)



**1 kategoriako marrazkia (haur hezkuntza)**

**PAGO, LIZ, HUR, PINTXO, IRATXO JAKINTSUA ETA MITHY SEI IRATXO ZIREN, ETA BAKOITZA BERE ZUHAITZEAN BIZI ZEN. ASTEAN BEHIN, ELKARREKIN AFALDU ETA LO EGITEN ZUTEN IRATXO JAKINTSUAREN ZUHAITZEAN, IRATXO JAKINTSUAREN ZUHAITZA BASOKO HANDIENA BAITZEN.**

**IRATXOAK BETI DAUDE ELKAR BESARKATZEN. ELKAR BESARKATZEN DUTE TOPO EGITEN DUTEN BAKOITZEAN, ELKAR BESARKATZEN DUTE ELKAR AGURTZEKO, ELKAR BESARKATZEN DUTE AGUR ESATEKO, AMETSETAN ERE ELKAR BESARKATZEN DUTE. BESARKATZEN DIREN BAKOITZEAN, KILI-KILIAK SENTITZEN DITUZTE TRIPAN. HUNKITZEAZ GAIN, BESARKADEK BABESTU ETA BIZITZA LUZATZEN DIETE. BESARKADA BATEK BIZITZA ORDUBETE LUZATZEN DUELA DIOTE. HORREGATIK BIZI DIRA HAIN LUZAROAN IRATXOAK.**

**ARRATSALDE BATEAN, LIZ, PAGO, HUR, PINTXO ETA IRATXO JAKINTSUA, IRATXO JAKINTSUAREN ZUHAITZAREN ONDOAN JOLASEAN ARI ZIREN. MITHY ZUHAITZ HANDIAREN BARRUAN ZEGOEN AFARIA PRESTATZEN. MITHYRI JANARIA PRESTATZEA GUSTATZEN ZITZAION; ETA, GAINERA, BERE URTEBETETZE EGUNA ZEN.**

**- BEGIRA HUR, DINOSAURO BAT! TIRANOSAURUS REX BAT DA!!!**

**-EZ KEZKATU PAGO, BADA KIZU DINOSAUROEK EZ DUTELA IRATXORIK JATEN! -ESAN ZUEN IRATXO JAKINTSUAK.**

**- BAI, BADAKIT, BAINA AGIAN REX-AK PINTXO TRIKUA DELA USTE DU, ETA JAN EGINGO DU! JA, JA, JA, JA.**

**PINTXOK ERANTZUTEN DIO:**

**- OSO BARREGARRIA PAGO, TXALO ERDI BAT ZURETZAKO!**

**MITHY ZUHAITZETIK ATERA ZEN, ETA...**

**-AFARIA PREST DAGO. GAZTAINA ENTSALADA BELAR USAINTSUEKIN ETA POSTREA... HIRUSTA HOSTOAK PIKU-ESNEAREKIN. IUJU!**

**SEI IRATXOAK ZUHAITZERA SARTU ZIREN, FESTA GIROA ZEGOEN. ZUHAITZAREN BARRUAN IRATXOEK ELKAR BESARKATZEN ZUTEN, DANTZA EGITEN ZUTEN. KANPOAN, DINOSAUROAK ORROKA KANTARI ARI ZIREN ETA TXORIEK BEREN AZKEN KANTUAK ABESTEN ZITUZTEN, ILUNTZEAN. MITHY ZORIONDU ONDOREN, IRATXOAK MAHAIAREN BUELTAN ESERI ZIREN AFALTZEKO ASMOZ, ETA BAT-BATEAN...**

**- ZE ARRAROA, ORAINDIK EZ DU ILUNDU ETA TXORIEK KANTATZEARI UTZI DIOTE- ESAN ZUEN MITHYK.**

**- EGIA DA...**

**- DINOSAUROEN ORROAK ERE EZ DIRA ENTZUTEN- GEHITU ZUEN LIZEK.**

**BASOA ISILDU EGIN ZEN ETA IRATXOAK ZUHAITZETIK KANPORA ATERA ZIREN. ZERUTIK ZARATA BAT ZETORREN, ZARATA GEROZ ETA OZENAGOA ZEN, ETA SUZKO BOLA ERRALDOI BAT AGERTU ZEN ZERUAN. METEORITO BAT ZEN. METEORITOAK BASOAREN BESTE ALDEAN JO ZUEN, IRATXO JAKINTSUAREN ZUHAITZETIK OSO URRUN, BAINA KOLPEA HAIN IZAN ZEN HANDIA, NON LURRAK DARDARA EGIN ZUEN. HAUTS-HODEI HANDI BATEK ESTALI ZUEN BASOA.**

**- GOAZEN BARRURA! -ESAN ZUEN IRATXO JAKINTSUAK.**

**ZUHAITZAREN BARRUAN...**

**- ZER IZAN DA HORI?**

**- 1.000 TRUMOI BESTEKO ZARATA EGIN DU, LURRA DARDARKA DAGO ORAINDIK!!!**

**- ZER EGIN DEZAKEGU? -GALDETU ZION IRATXO JAKINTSUARI.**

**- HEMEN GERATUKO GARA, NIRE ZUHAITZEAN SARTUTA, ETA HAUTSA DESAGERTZEN DENEAN KANPORA ATERAKO GARA BERRIRO.**



**ASTEAK AURRERA ZIHOAZEN, BAINA HAUTS-LAINO HANDIAK PLANETA ESTALTZEN JARRAITZEN ZUEN ETA EGUZKIAREN ARGIAK EZ ZUEN ARGITZEN, BETI GAUA ZELA ZIRUDIEN. DINOSAUROEK EZ ZUTEN JANARIRIK AURKITZEN ETA ASKO GOSEZ HIL ZIREN. KROKODILOEK ETA DORTOKEK, ORDEA, BIZIRAUTEA LORTU ZUTEN, ASTEAK EGON BAITAITEZKE JAN GABE.**

**HODEIEK HAIZEAREN LAGUNTZA BEHAR ZUTEN ELKARTU ETA EURIA BOTATZEKO, BAINA HAIZEAK, SAIATU ARREN, EZIN ZUEN PUTZIK EGIN. SAIATZEN ZEN BAKOITZEAN, ITO EGITEN ZEN HAUTSAREKIN.**

**BASOKO IRATXO GUZTIAK BERAIEN ZUHAITZETAN SARTUTA ZEUDEN, ETA BERAIEN ETXEETAKO IZERDIAZ ELIKATZEN ZIREN. HORREGATIK JARRAITZEN ZUTEN BIZIRIK. BAINA, ASTE ASKOTAN ZEHAR EURIRIK EGIN EZ ZUENEZ, ZUHAITZAK ETA IRATXOAK AHULTZEN HASI ZIREN.**

**IRATXOEK HIRU ASTE ZERAMATZATEN ZUHAITZ BARRENETAN ITXITA ETA ZERBAIT EGIN BEHAR ZUTEN.**

**- GUK ZORTEA DUGU, SEI GAUDE ETA ELKAR BESARKA GAITEZKE HOBETO SENTITZEKO, BAINA BASOKO GAINERAKO IRATXOAK BAKARRIK DAUDE, IRATXO BAKOITZA BERE ZUHAITZEAN.**

**- BAKARRIK BADAUDE, NORK BESARKATUKO DITU?- ESAN ZUEN HURREK GOIBEL ETA AHOTS TRISTEAREKIN.**

**- OSO TRISTE EGONGO DIRA, ETA BALITEKE GAIXORIK EGOTEA- ESAN ZUEN PINTXOK**

**-ZERGATIK EZ DUGU DIBIDABADU KANTA ABESTEN? HORRELA ZUHAITZ GAIXOAK OSATU EGINGO DITUGU!**



*DIBIDABADU KANTUA ENTZUN NAHI DUZU? KLIKATU BEHEKO ESTEKAN.*

[https://youtu.be/14eHPqP\\_irQ](https://youtu.be/14eHPqP_irQ)

**ABESTEN BUKATU ZUTENEAN, IRATXO JAKINTSUAK ESAN ZIEN BESTE IRATXOEI:**

**- GAUR GAUEAN AMETS BATEAN ELKARTUKO GARA ETA EGUZKIRAINO BIDAIATUKO DUGU. EGUZKIA NI BAINO ASKOZ JAKINTSUAGOA DA, ETA BALITEKE BERAK IRTENBIDE BAT IZATEA. BADAIZUE ZEIN DEN AMETS BATEAN ELKARTZEKO TRIKIMAILUA. GOAZEN LOTARA!**

*IRATXOEKIN AMETSETAN ELKARTZEKO TRIKIMAILUA ZEIN DEN JAKIN NAHI DUZU? KLIKATU BEHEKO ESTEKAN.*

<https://youtu.be/2JQdgA9jr-k>

**ABESTI MAGIKOA ABESTU ONDOREN, MITHY, HUR, PAGO, LIZ, PINTXO ETA IRATXO JAKINTSUA LO GERATU ZIREN, ETA, ELKARREKIN, AMETS BATEN GAINEAN, EGUZKIRAINO BIDAIATU ZUTEN. EGUZKIAK ESAN ZIEN:**

**- BADAKIT ZERGATIK ETORRI ZARETEN NI IKUSTERA. HAUTS-LAINOA DESAGERRARAZTEA ETA MUNDUA LEHEN ZEN BEZALAKOA IZATEA NAHI DUZUE, EZTA? NIRE ARGIAK ETA BEROAK LURRA BERRIRO ARGITU ETA BEROTU DEZATEN NAHI DUZUE, HODEIAK BERRIRO ELKARTU DAITEZEN NAHI DUZUE, LURREAN BIZITZARAKO HAIN BEHARREZKOA DEN EURIA ARI DEZAN NAHI DUZUE. BADAGO MODU BAT- ESAN ZUEN EGUZKIAK- IRTENBIDEA OSO ERRAZA DA: BESTE NORBAITI ON EGINGO DION DESIO BAT ESKATU BEHAR DUZUE!**

**3. kategoriako marrazkia (3-4 mailak)**

**IRATXOEK EZ ZUTEN EZER ULERTZEN.**

**- NOLA BESTE NORBAITI ON EGINGO DION DESIO BAT? - ESAN ZUEN HURREK, ETA EGUZKIAK ERANTZUN ZION:**

**- BAI, ZUEK EZ ZARETEN BESTE NORBAIT LAGUNDUKO DUEN GURARIAK BAKARRIK DESAGERRARAZI DEZAKE HAUTS LAINOA. HAU BETE DADIN, ELKAR BESARKATU BEHAR DUZUE, DESIO BERDINA PENTSATU ETA DESIRATU.**

**- EURIA EGIN ETA HAUTS-LAINOA DESAGERTZEA NAHI DUGU!!! - ESAN ZUEN MITHYK.**

**- EZ, EZ DU HORRELA FUNTZIONATZEN. TRISTE EDO GOIBEL DAGOEN NORBAIT SENDATZEN DUEN DESIOA IZAN BEHAR DU- ESAN ZUEN EGUZKIAK.**

**LIZEK, AIREAN TXIRINBUelta BAT EGIN ONDOREN, ESAN ZUEN:**

**- BADAKit!!! HAIZEAK EZIN DU PUTZ EGIN, AIREA HARTU ETA INDARREZ BOTATZEN SAIATZEN DEN BAKOITZEAN HAUTSAREKIN ITOTZEN DA.**

**- ORDUAN HAIZEA TRISTE DAGO - ESAN ZUEN PAGOK.**

**- OSO TRISTE -GAINERATU ZUEN HURREK-, BADAkiELAKO BERE LAGUNTZARIK GABE HODEIAK EZIN DIRELA ELKARTU, BARRUAN DAUKATEN EURIA ASKATZEN UZTEKO.**

**IRATXOEK ELKARRI BEGIRATU, BESARKATU ETA ESAN ZUTEN:**

**- HAIZEA POZIK SENTITZEA NAHI DUGU!!!**

**- BAIiiiiii!!!!**

**BEHIN ETA BERRIZ DESIRA BERA ESKATU ZUTEN, HAIZEAREN TRISTURA DESAGERTZEA NAHI ZUTEN, BERRIRO POZIK SENTITZEA NAHI ZUTEN. ITXARON ETA ITXARON, BAINA HAIZEAK EZ ZUEN UFADARIK SORTZEN.**

**-GURE DESIRA EZ DA BETE!- ADIERAZI ZUEN PINTXOK. IRATXOAK KEZKATUTA ZEUDEN, EZ ZUTEN EZER ULERTZEN. ZERGATIK EZ ZEN BERAIEN DESIOA BETE?**

**ORDUAN EGUZKIAK ESAN ZIEN:**

**-EZ DIDAZUE BUKATZEN UTZI. BESTE BATEN ONERAKO ESKATUTAKO DESIOAK BETE DAITEZEN, DESIOA MUNDUKO IZAKI BIZIDUN GUZTIEN ARTEAN ESKATU BEHAR DA. EDO, BEHINTZAT, AHAL BESTE IZAKI GEHIEN BILDUTA.**

**SEI LAGUNEK BEGIAK ITXI, HIRURA ARTE ZENBATU ETA ELKAR BESARKATU ZUTEN.**



**ETA HORRELA AMETS MAGIKO BATEAN MURGILDU ZIREN GURE IRATXOAK, ETA AMETS HORRETAN BESTE IZAKI BIZIDUN ASKOREKIN BAT EGIN ZUTEN.**

**UNE HORRETAN, IRATXOEN DESIRAK BULTZATUTA, IRITSI NINTZEN NI LEHENGO ALDIZ GOOKAPIKO MUNDURA. TRIPA BARRUAN KILI-KILI HUNKIGARRIAK SENTITU GENITUEN AMETS HORRETAN ELKAR BESARKATURIK GEUNDEN IZAKI BIZIDUN GUZTIOK, ETA ORDUAN, HAINBESTE EGUNEZ SENTITU IZAN GENUEN TRISTURA GUTXINAKA DESAGERTZEN HASI ZEN. ORDUANTXE, BAT EGINIK, DESIRA BERA ESKATU GENUEN DENOK:**

**-POZTASUNA GURE BASORA ITZULTZEA NAHI DUGU!**

**BAT-BATEAN, HAIZEA PUTZ ETA PUTZ HASI ZEN, GEROZ ETA INDARTSUAGO. HAIN INDARTSU JO ZUEN, EZEN HAUTS-LAINOA DESEGIN ETA ESPAZIO AMAIGABEAN DESAGERTU ZEN. ANIMALIAK BERAIEN GORDELEKUETATIK ATERA ZIREN, LANDAREAK LORATZEN HASI ZIREN ETA IRATXOAK ZUHAITZ BARRENETATIK POZIK ATERA ZIREN.**

**UNE GOGOR HURA NOLA GAINDITU ZUTEN INOIZ EZ AHAZTEKO ABESTI HUNKIGARRI BAT IDATZI ZUTEN DENEN ARTEAN, TRISTURA SENDATU ETA EMOZIOZ BETETZEN ZITUEN KANTU MAGIKO BAT: KILI-KILI KANTUA.**

*[KILI-KILI KANTUA ENTZUN NAHI DUZU? KLIKATU BEHEKO ESTEKAN.](https://youtu.be/tuWd922x6-4)*

<https://youtu.be/tuWd922x6-4>

*HURA IZAN ZEN GOOKAPI-KO MUNDU MAGIKORA  
BIDAIATU NUEN LEHEN ALDIA, EZ DAKIT ONDO  
NOLA LORTU NUEN LEHEN ALDIZHARA IRISTEA.  
IRATXOEN MAGIA IZANGO ZEN, ZIURASKI. KONTUA  
DA ORAIN NIRE KABUZ, IRUDIMENA ERABILIZ,  
GOOKAPI-RA BIDAITZEN IKASI DUDALA. BERTAN  
MILAKA ABENTURA BIZI IZANDITUT. HURRENGOAN,  
BESTE ABENTURA BAT KONTATUKO DIZUET.*

*BITARTEAN HEMENTXE DAUKAZUE IRATXOEN  
MUNDURA SARBIDEA...*

<https://www.youtube.com/c/GookapiEuskaraz/featured>

